

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekin harreman ona mantentzea ezinbestekoa da, produktua modu egokian aurrera eramateko. Bezeroak produktuarekin zer nolako arazoak dituen kontsultatzeko zerbitzu automatizatu bat edukiko dugu eta GAMA WALLET-a webgune baten bidez salduko dugu.



Hasteko 100 diru-zorro jarriko ditugu merkatuan eta arrakasta izanez gero, salmenta kopurua handitzeko aukera izango dugu. Produktua merkatuan ongi finkatuta dagoenean, baliabide berdinak erabiliz gure produktuaren etekinak berdinak izatea lortzea izango dugu helburu, eta guzti hau prezioan aldaketarik egon gabe.

Gure produktua saltzeko publizitatea erabiliko dugu, irratiko publizitatea eta telebistako publizitatea. Bertan gure produktuaren funtzionamendua eta helburua helaraziko diegu gure bezeroei, eta gure email-a nahiz telefono zenbakia ere utziko dugu hauen esku.

Azkenik ondo dago jakinaraztea gure produktua jende guztiari bideratuta dagoela, eta nahi duenak erraztasunez erabili ahal du.



